

B

BARREN

TOKIKOM



Iritsi da
etorkizuneko
autoa



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata,
Iridiologoa eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaille linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.

Goiz eta arratsaldez.

Tel.: 943 531 953

669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etzerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

Tel.: 689 926 016

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behea.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869



Ametsen galderak

Lehenago egunean, erdi lotan nengoela, sekulako parada izan nuen neurearekin jarduteko. Buru joka luze aritutakoan etorri zitzaidan eta tupustean galdetu zidan:

– Zoriontsua zara?

Zurbil, larrugorri, more gelditu nintzen, zer esan ez nekiela.

Horren trantze larrian ikustean, eta nolabait lagundu nahian, bigarren galdera luzatu zidan:

– Zer da zoriontasuna?

Galderaren erantzunari irtenbidea topatzen aritu arren mutu gelditu nintzen, zer esan ez nekiela.

– Batzuek “zoriontasuna zoriontasunik eza” dela diote, zer deritzozu?

– Ez dakit, bada.

Gure artekoa bakarrizketa itxura hartzen ari zela jabeturik, erantzuteko moduko hirugarren galdera luzatu zidan:

– Badago zoriontasun osoa lortzerik?

– Ez, ez dago, baina bai une zoriontsuak.

Atzealdean zegoen gizaki multzoak erantzunaren zuzentasuna saritu aldera, txalo sorta batez erantzun zidan.

Lasaiago nengoen, zoriontsuagoa nintzen besteen oniritzia entzutean.

– Eta galdetuz gero zoriontasuna zure baitan edota kanpoan aurkituko duzun, zer esango zenuke?

– Zoriontasuna norberaren baitan dago; horretan ez dago duda izpirik, zeren eta norberak bere burua maitez gero, *-tasun* eta

-keriak onartuz gero, errazagoa baita aurrera egitea; aitzitik, bila bazoaz... Ez dakit ulertu didazun.

– Lasai. Ametsok dena ulertzen dugu. Azken galdera.

Zoriontasunari etsamina baten traza hartzen ari nintzaion, nahiz eta jakin zoriontasuna detaile txikiko eta nota baxuko gauzetan dagoen.

– Euskal Herrian badago zoriontasuna lortzerik?

– Ez, ze ingurukoei erreparatuz gero, etxe askotan, langabezia dela, kontratu zaborra dela, presoak direla, sufrimendua dela... zaila da zoriontsua izatea.

– Orduan, segi *lotan*, zoriontsua izango zara eta.

Juan Luis Murgertza



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Zoriontasunari etsamina baten traza hartu nion, nahiz eta jakin zoriontasuna detaile txikiko eta nota baxuko gauzetan dagoen”

Inauterietako irudiak
MEDIATEKAN
jarriko ditugu astelehenean



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



Santa eskea argazkitan



Aurten ere eztarriak urratu arte jardun zuten koplariak Santa Agedari kantuan. Bezperan irten zen Elgoibar-ko Izarra baserri kantura, eta zapatuan, eguraldi dezentez makurragoarekin, irten zen Etxegiña taldea eta Mendarokoa. Mendaron, 45 bat lagunek jardun zuten kantuan, hiru taldetan banatuta, eta guztira, 3.500 euro batu zituzten. Ondoren, bazkaria egin zuten Aizpe elkartearen lagun giroan. Bitoriano Loiolak, Ospas-ko aittittak, adina ez dela ezertarako oztopo erakutsi zuen, 83 urterekin soinua hartu eta koplariak kantuan jarri zituenean. Elgoibarko Izarrarekin, bestalde, 25 bat lagun irten ziren kantura, 1993an berreskuratutako tradizioari eutsiz, eta 1.900 euro batu zituzten euskara elkartearentzat. Etxegiña taldekoek ere giro onean jardun zuten, eta 1.095 euro jaso zituzten, Caritasentzako. **Argazki gehiago:** www.elgoIBAREN.net



Kepa Urain Etxegina taldekoen koplari nagusia, taldekideekin. Zapatuan irten ziren kalera, kantura.



Arantza panderoarekin, Meabe ondoan duela.



Arantza eta Ekaitz trikitilariak, Sallober Iriarte baserri atarian.



Joxe Gurrutxagak 91 urte bete zituen Santa Ageda bezperan, eta oparia jaso zuen.



Koplari baten makila landua.



Areitio eta Meabe bertsolariak Ballegoiti baserri-ko bizilagunari koplatan.



Mañukortak jardun zuen koplakantuan Sahatsu Mendin.



Elgoibarko Izarrako koplariak Plaza Handian, bi taldetan banatu aurretik.



Irati Agirreazaldegi, Joxe Gurrutxagari kantuan.



Aitor Urain soinu-jolea, Etxegiña taldekoekin.



Ixidore Solupe soinuarekin, Etxegina taldeko koplariak atzetik dituela.



Etxegiña taldeko koplariak, Madalan, kantuan.



Mendaron, Sahatsu Mendi aldeko baserrietan kantuan ibili ziren koplariak, Ospas Txiki baserri atarian.



Juan Karlos Arrieta koplakantuan, Etxeginakoekin.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jarzea. Bidali helbide honetara: baren@elgoibarkoizarra.com.

Torturak badirau

1981. urtea zen Joxe Arregi Zizurkilgo herritarra atxilotu eta 9 egunez bortizki torturatu zutela. Otsailaren 13 hartako bere hitzek ongi adierazten dute Joxe Arregik pairatu behar izan zuena. "Oso latza izan da" esan eta heriotzaren marra igaro zuen.

Azken 40 urteotan, 7.000 euskal herritar baino gehiago izan dira basakeria hori sufritu dutenak. Euskal herritarren aurkako errepresio eroan tortura egunero erabili dute unean-uneko gobernu ezberdinek.

Independentziaren aldeko borrokarekin amaitzeko tresna politiko moduan erabiltzen du tortura espainiar Gobernuak, informazio politikoa eskuratu, atxilotuen autoinkulpazioak lortu eta euskal herritarren artean benetako beldurra zabalatzeko helburuarekin.

Atzean utzi ditugun hilabeteak dira esaten dugunaren adibide. 2009. urtean 45 euskal herritar torturatu dituzte guardia zibilek, ertzainek eta espainiar poliziek. Azaroan gazte independentisten aurka buruturiko polizia operazio zabalak torturaren ankerkeria erakutsi digu berriz ere, eta tartean hainbat neska gazte sexualki jazarri zituzten.

Horrez gain, urte honetako lehen hilabetean gogor jo gaitu osterata torturaren errealitateak. Pello Olano lizartzarra ankerki torturatu zuen Guardia Zibilak inkomunikazioaldian.

Eta Ondarroan Ertzaintzak atxiloturiko euskal herritarrei inkomunikazio egoera muturreraino luzatu diete, eta horiek ere tortura larriak salatu dituzte.

Gure aldetik, data hauetan gogoan izan nahi ditugu Euskal Herrian torturatu dituzten herritarrak, bereziki torturak hil dituenak. 2010. urteko otsailaren 13an oraindik orain torturaren errealitatearekin aurrez aurre aurkitzen gara, atxilotuen inkomunikazioak horretarako inpunitate guztia eskaintzen dielako torturazailerei.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua otsailaren 13an 12:30etan Herriko Plazatik aterako den manifestazioan parte hartzeke deia egiten dizue.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua ☪

Herri Eskolako Ate Irekien Eguna

Pasa den larunbatean, Ate Irekien Eguna ospatu genuen Elgoibarko Herri Eskolan; festa egun polita izan zen eskolako partaide guztientzat (irakasle, ikasle eta guraso), eta giro ezin hobean joan zen.

Idatzi honen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu festa antolatzen eta aurrera eramaten lagundu duzuen guztioi, irakasle nahiz guraso.

Herri Eskolako Kalamua gurasoen elkarte ☪

Sugarrrak itzali arte

Eguena izan arren, sekula baino lagun gehiago elkartu ginen Plaza Handian (25 lagun), eta, urteroko legean, Santa Agedaren omenez kantatu eta eskean irteteko gogoz geunden denok.

Bi taldetan banatu ondoren, Idotorbeko eta Aiastiako bidea hartu genuen batzuek; besteok, berriz, Sallobentekoa eta Urruzunokoa hartu genuen. Zortzi ordu inguru kantuan eta eskean eman ondoren,

52 baserri koplatu genituen guztira. Aurren ere iltzatuta geratu zaizkigu baserriarren aurpegiak eta emozioak, eta bihotzaren erditik eskertu nahi diegu egiten diguten harrera: jan-edanak, limosna... Baina arantzarik gabeko arrosarik ez dagoenez, barkamena ere eskatu nahi diegu zain egon eta haien etxera azaldu ez ginen baserriarrei. Nahiko genuke, baina ezin dugu estimatzen gaituzten toki guztietara iritsi.

Gaueko hamar eta erdiak inguru ziren bi taldeak Aiastiako soziedadean bat egin genuenean. Kanpoan hotz egin arren, barrura sartu ginenean Kalamua elkarteko lagun berotasunaz eta afari gozoaz disfrutatzeke aukera izan genuen. Estimatzekoa, benetan, sanmigeldarren portaera.

1993an hasi ginen ohitura zaharrari hautsa kentzen, eta ordutik 18 urte pasa badira ere, lehen eguneko sentsazioak bizi izaten ditugu gure baserrietako atarrietan. Hori itzaltzen ez den bitartean, otsailaren 4an baserrietarako bidea hartuko dugu.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea ☪

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalao Amaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILERAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldagi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Ainara Sedano

Epa, Noe. Tarteka bezala, berriz ere hemen ikus-


ten dugu elkar, hemendik kanpo nahi baino gutxiago egiten dugu eta!

Azkenaldian buruan buelta asko ematen ari naiz kontu batzuei eta besteei, gehiegi agian, baina buru barruko irratia, zoritxarrez, ezin izaten dut itzali nahi dudanean. Askotan, gidatzen ari naizela, konturatzen naiz hainbat kilometro bideaz jabetu gabe egin ditudala, eta ikaritzen naiz. Pentsamenduetan murgilduta zeharo joan ohi naiz, eta momentu horietan zerbait gertatuz gero, nire erreakzio gaitasuna zenbatekoa litzatekeen pentsatu izan dut sarri.

“Buruko arazoei buruz oraindik beldur ugari ditugu”

Nire buruak eta pentsamenduek harritzen naute maiz, eta jakin-mina sortzen didate. Horiei behar den arreta ipintzen ez diegulakoan nago, eta iruditzen zait, nire kasuan behintzat, burua daukadan arabera bizitza ere hala moldatzen zaidala aldika; burua ondo daukadanean bizitzak irribarre gehiago egin ohi dit, eta pentsamenduak okerrago daukadanean nik egin behar diot irribarre berari, aurrerantz egiteko gutxienez, eta sasoi hobeak etor daitezten.

Uste dut buruko arazoei buruz oraindik ere tabu edo beldur ugari ditugula, eta, horrekin lotutako arazoak ditugunean, horiek onartu eta laguntza eskatzea kostatzen zaigula. Baina dirua jokatu nuke, tarteka denok psikologoarekin berba batzuk trukatu bagenitu, munduak hobe funtzionatu lukeela. Eta bizitza aktibitate kontu bat dela pentsatzen dudan arren, nork ez du behar noiz edo noiz norbere lagunekin *sasi-psikologo* sesio bat, ezta?



Noemi Otegi



Bikaina iruditu zait, irratia ezin itzaltzeari buruz egin duzun aipamena, hori da hain zuzen niri makina bat bider gertatzen zaidana, gauetan lotarakoan, baita gidatzen ari naizela ere, edota kalean pasieran noalarik, parez pare datorkidana askotan ez dut ikusi ere egiten! Egia da buruarekin zerikusia duten arazo eta gaixotasunekin tabu eta beldur asko dagoela, hain erreza da tibian apurtuta duzula esatea, edo gripeak harrapatu zaituela, edo eztarria urratua duzula, baina depresioak jota zaudela esatea dezente gehiago kostatzen da, eta azkenean beste gaixotasun bat besterik ez da. Baina gure artean hitz egiterakoan ere, baxuxeago esaten dugu, ezkutuko kontua balitz bezala, aipatu ezin daitekeena, inoiz onartu ezin daitekeen ahultasuna.

“Depresioak jota zaudela esatea gehiago kostatzen da”

Egunerokoak, presak, etengabeko lasterketak, atzean gertatu garenaren beldurrak, lehenengo edo bigarrenagoa izatearen beharrak ia guztiok eraman gaitzake momentu batean edo bestean psikologo beharra izatera, edo behintzat lagun on batekin egoteko beharra izatera, gu entzuteko prest dagoen lagun horietako batekin, ez ondoren bere arazoak kontatzeko desiratzen egoten den horietako batekin, baizik eta benetan zu entzuteko prestasuna duen horrekin, burura etorri zaizun hori. Ea ba noiz elkartzen garen! Gu ere esanak errazak ditugu bai, baina eginak galtzen gaitu eta!



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AUTOA ENTXUFATZEN



David Garrido eta Josu Aizpuru elgoibartarrak auto elektrikoa ikertzen ari dira.

Badira ehun urte Porsche etxeak lehen kotxe elektrikoa merkaturatu zuela (1907), baina ordutik apenas egin da aurrera, petrolioaren negozioak bide guztiak itxi dizkiolako ikerketari. Erregai fosilak, baina, ez dira betiko, eta horren garrantziaz ohartuta, eta CO₂ isurketak mugatu beharrak behartuta, ibilgailu elektrikoaren gaineko gogoetak indar handia hartu du. Gai horixe izan zuten hizpide martitzenean, Donostian, lehiakortasunari buruzko goi bileran. Europako Industria eta Berrikuntza ministerioetako ordezkariak ibilgailu elektrikoa sustatzearen alde egin zuten han.

Ainara Argoitia

Etorkizuneko autoa omen da elektrikoa, eta, horrenbestez, zeresan handia ematen ari da azkenaldian. Mitsubishi etxeak, esate baterako, Donostian aurkeztu zuen martitzenean merkaturatzeko gertu daukan auto erabat elektrikoa: Mitsubishi i-MiEV modeloa. Auto txikia da, 150 edo 160 kilometro inguru egin ditzake, ez du inolako zaratarik ateratzen eta sakelako telefono baten modu berean kargatzen da, etxeko entxufearen erabiliz. Etorkizunaren eredu dela nabarmendu dute adituek, eta denek probatu nahi dute, jakin badakitela-

ko automozioaren sektorean zerbait egosten ari dela.

Elgoibarren ere bada mundu horretan buru-belarri dabilenik. Javier Arrizabalagak, Arrizabal elkarteko nagusiak, esate baterako, aspaldi egin zuen auto elektrikoaren aldeko apustua. Aitzindari izan zen inguruotan, eta bide bat egin dauka. Zerbitzuetako ibilgailuak egiten ditu: kaleak garbitzeko makineria, udaltzaintzako nahiz posta zerbitzuentzako motorrak, zaborrak biltzeko kamioiak....hamaika bat modelo merkaturatu dituzte, eta lekua egin dute merkaturatu, bereziki Bizkaian. Bilboko Udalak,

esaterako, seirehuna kilo zabor batzeko moduko 23 ibilgailu erosi dizkio. Zerbitzuetako ibilgailuak dira, eta erakunde publikoak dira euren bezero nagusiak. Eta ez dute bide txarra aukeratu, gaur-gaurkoz erakunde publikoak direlako auto elektrikoa erosteko ahalmena dutenak, bestelako ibilgailuen aldean garestiak direlako oraindik.

David Garrido eta Josu Aizpuru elgoibartar gazteak, berriz, Mondragon Unibertsitatean ari dira, etorkizuneko auto baten diseinua lantzen. Auto elektriko bat erosi du Unibertsitateak, eta hari tripak kendu eta Mondragon taldeak fabrikatutako motorrek

eta erregulatuak zelan funtzionatzen ikertzen dihardute orain. Biek ere argi dute auto elektrikoa merkatura modu estandarrean iritsi ahal izateko, inbertsio handia egin beharra dagoela.

Hain justu ere, borondate ezak trabatu du, haien ustez, auto elektrikoa merkaturatzea. "Petrolioarekin ondo funtzionatu da urteetan, eta ez da beste ezeren alde egin, petrolioak gaur egungo eskaerari ezingo diola erantzun jabetu diren arte", azaldu du Arrizabalagak. Bat datoz Garrido eta Aizpuru Mondragon Unibertsitateko irakasleak ere: "Beharrak eragin du autogintza elektrikoa sustatzea. Petrolioaren prezioak nabarmen gora egin duenean, beti sortu izan da kotxe elektrikoekiko interesa. Krisi garaian hasten dira larritzen", azaldu du Aizpuruak. Orain, hala ere, kontua "serioagoa" dela dio Garridok: "Orain kotxe elektrikoa sustatzeko konpromiso handiagoa dago".

Gaur egun, erregai fosilak dira energia sortzeko lehengai nagusiak, munduan kontsumitzen dugun energia osoaren %80 jatorri fosilekoa delako. Erregai fosilak, hala ere, ez dira agortezinak, eta nekez emango dute eskaera guztiari erantzuteko beste. Datu bat: gaur egun, 800 milioi ibilgailu baino gehiago daude munduan, eta 2011rako 1.300 baino gehiago izango direla aurreikusi dute. Era berean, Europako Batzordeak CO₂ isuriak murrizteko neurri zorrotzak iragarri ditu, eta airearen kalitatearen gaineko hirietako araudiek ere gas kutsakorren isurketak murriztera be-

hartzten dute. Hala, derrigorrean bada ere, kontzientzia ekologikoak indarra hartu du, eta horrek bultzada handia eman dio automozio eredu berriari.

Motor elektrikoa konbustioko motorra baino eraginkorragoa eta isilagoa da

Auto-ekoizleek auto elektrikoaren prototipo ugari atera dituzte, eta Espainiako Industria ministroak iragarri du 2012rako estatuan milioi bat auto elektriko izango direla, hibridoak ere kontuan hartuta. Era berean, Mercedesek eta Audik ere auto elektrikoak merkaturatuko dituzte aurten, eta Renaultek, berriz, aurreratu du 2013an bere auto modelo guztiak elektrikoak izango direla. BARRENEk el-karrizketatutakoek zaila ikusten dute ministroaren iragarpena betetzea, baina argi dute luze ez dela erruz ugarituko direla auto elektrikoak. Haien ustez, hibridoaren eskutik etorriko da trantsizioa.

Auto elektrikoaren abantailak

Auto elektrikoak badu ezaugarri bat, nekez pasatuko dena oharkabean: isilta-

suna. Apenas egiten duten zaratarik, eta hori ondo baino hobeto dakite Arrizabal elkarteari zaborra biltzeko kamioiak erosi dizkietenek. "Zaborra biltzeko kamioi batek ehun dezibelioko zarata ateratzen du, eta elektrikoak 10-20koa", azaldu du Arrizabalagak. Isilak izateak, baina, badu beste alderdi bat oso kontuan hartzekoa losuren arabera. "Oso tentuz gidatu behar da. Kalifornian erraz saltzen ari den Tesla auto deportiboari, esaterako, *mata-viejas autoa* esaten diote.

Isilak izatea da, beharbada, ezaugarri deigarriena, baina beste alde on batzuk ere baditu. Motor elektrikoa konbustioko baino eraginkorragoa da. Elektrikoaren eraginkortasuna %96koa da. "Tamaina bereko motorra izan arren, matrikula gabeko auto txiki bat baino azkarragoa da gurea, elektrikoa delako. Gainera, ohiko auto batekin frenatzen dugun aldiro, energia galtzen dugu, baina motor elektrikoaren kasuan energia hori bateriara itzultzen diozu. Jaitsieretan eta frenatzen dugun guztietan energia errekuperatzen dugu", azaldu du Aizpuruak.

Kotxe elektrikoaren aldekoen ahotan sarri entzungo dugu 0 emisioko autoa izango dela, baina hori ez da guztiz egia. Izan ere, autoaren bateriak kargatzeko erabiltzen dugun elektrizitatearen arabera, izango da hori. Birkarga hori egiteko, energia berriztagarriak erabiltzen baditugu bakarrik izango da guztiz garbia.



Javier Arrizabalaga, Arrizabal elkarteko burua, makineria elektrikoa erakusten.



Mondragon taldeak fabrikatutako motorrek eta erregulatzailerek auto elektriko batean zelan funtzionatzen duten ikertzen dihardute unibertsitatean.

AUTO ELEKTRIKOEN ERRONKA NAGUSIAK

Bateriak

Auto elektrikoa merkatura modu estandarrean iristeko edo serieko produkzioak lortzeko lan handia egin beharko da oraindik, eta erronka nagusia bateria egokiak lortzea izango da. Izan ere, bateriak dira auto elektrikoaren merkaturatzea geldotzen ari direnak, hein handi batean. Gasolinaren aldean gaur egungo bateriek ahalmen energetiko txikia dute. Bateria handiak eta pisutsuak dira, eta ondorioz, oso autonomia txikia eskaintzen dute. “Bateria arinak behar dira, eta, aldi berean, ahalik eta autonomia handiena eskainiko dutenak. Ezaugarri horiek, baina, kontrajarriak dira. Bateria zenbat eta arina-

goa orduan eta autonomia txikiagoa. Hori konpondu behar da”, azaldu du Garridok. Nolanahi ere, asko aurreratu dela nabarmendu du. 90eko hamarkadako ibilgailu elektrikoek berun-azidozko bateriak zituzten. Orain, ordea, litiozkoak dira, sakelako telefonoenak modukoak. Arinagoak dira, eta pisu berean, energia gehiago gordetzen dute.

Erabiltzeko moduko bateriak egon badaude, baina garestiak dira oso. Horrek autoaren prezioa ere nabarmen igotzen du. Auto elektrikoaren prototipoak oso txikiak dira, baina gama altuko auto batek baino gehiago balio dute, eta hori traba handia da. Horregatik, hein handi batean, erakunde publikoak dira, gaur egun, ibilgailu elektrikoaren merkaturatua.

Azpiegitura elektrikoa

Auto elektrikoak merkatura modu estandarrean sartzeko hasten direnerako, azpiegitura oso bat prestatu beharko da. Izan ere, autoak sare elektrikoari noiz, nola eta non konektatuko diren aztertu behar da. Gasolina-auto batek 600 kilometro egin ditzake, behin depositoa betetakoan, baina auto elektrikoaren autonomia energetikoa txikiagoa da, eta, horrenbestez, bateriak egunean behin kargatu beharko dira gutxienez. Gauz egingo da hori, sei bat ordu behar direlako bateriak osorik kargatzeko, eta, gainera, gauz energia eskaria txikiagoa delako. Adituen arabera, gaur egungo

sare elektrikoa gai da sei miloi auto kargatzeko, instalatutako potentzia indartu beharrik izan gabe. Hala ere, auto elektrikoek autonomia txikia dutenez, askotan ezingo da gauera arte itxaron bateriak kargatzeko. Horretarako, eta autoa nork bere etxean kargatzeko aukerarik ez daukarenentzako azkar kargatzeko postuak jarri beharko dira, tokian-tokian. Hala, ordu erdi eskasean gutxienez bateriaren %40-50 kargatuko dugu. Horretarako, baina, azpiegitura egoki bat izatea eta auto guztiak sistema bera erabiltzea ezinbestekoa da. Kargatzeko puntuak jarri beharko dira gasolindegietan, aparkalekuetan eta abarretan. Eibarko Corte Inglesean, esaterako, jarri dituzte.

Autonomia

Gaur egun merkaturatzen dauden kotxe elektrikoek 100 kilometro inguru egin ditzakete, euro baten truke. Aldiz,

ohiko auto baten depositoa betetzea denok dakigu zenbat kostatzen den. 80-100 kilometroko autonomia txikia dela pentsa daiteke, baina Europako bizilagunek, batez beste, 50-60 kilometro egiten dituzte egunean.

**Elgoibarko biribilguneak ez dira batere erosoak:**

“Kanpotik etortzen naiz egunero lanera Elgoibarrera. Erdigunean egiten dut lan, eta herriko biribilgune askotan arazoak izaten ditut. Osasun Zentro aurreko biribilgunean autoak egoten dira aparkatuta, eta buelta emateko zailtasunak izaten ditut. San Roke eta Trenbide kalearen artean dagoen biribilgunea ere ez da batere eroso. Nire ustez, kale batzuk norabide bakarrekotako izango balira egoera erraztuko litzateke”.



Urasandiko zubiko barandak herdoilduta daude: “King-Kong inguruan aldatu dituzte barandak, baina Urasandiko zubian ez dute obrarik egin. Herdoilduta eta zaharkituta daude bide guztian, eta nire ustez, aldatzeko beharra badago. Herriko ingurune gehienetan berritu dituzte barandak, eta uste dut zubi horrek ere badaukala berritu beharra”.

**Mendaroko Ikastolako Arno guraso elkarteak eskerak eman nahi dizkie Santa Agedako antolatzaileei:**

“Mila esker santa eskeko koroetan parte hartzeko aukera eman diguzuelako. Eskerrik asko, baita ere, guraso elkartearentzako dirua eman duten mendaroak guztiei”.



Zuen kezkak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

JOXE MARI BETELU AZURMENDI

*Betirako utzi gaituzu
baina zure begi urdinak
egunero ikusiko ditugu*

Etxekoak



I. URTEURRENA

JOSE GALARRAGA URIA

2009ko otsailaren 16an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 13, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zareteno eskerrak aldeztu aurretik.



Mendaroko ospitaleko larrialdi zerbitzuetako lanak Aste Santurako amaituko dituzte, okerrik ezean

Eraikin berria egin dute lehengoaren ondoan, eta barrua atontzen ari dira orain

Mendaroko ospitaleko larrialdi zerbitzuetako gunea handitzeko obrak bide onetik doaz, atzerapenak atzerapen. Gaur egun, larrialdi zerbitzuetako gunek 500 metro koadro ditu, baina obra horiei esker, 1.500 metro izango ditu aurrerantzean. Horretarako, bi solairutako eraikin bat altxarazi dute, larrialdi zerbitzuetako gunearen ondo-ondoan. Eraikina amaituta, barruko lanetan ari dira orain Obegisa enpresakoak. Gelak egokitu eta ospitaleko ekipamenduak behar diren lekuan jartzen. Okerrik ezean, Aste Santurako amaitzea espero dute arduradunek. Berez, iazko gabonetarako amaituta behar zuen.

Erabiltzaile kopuruak nabarmen egin du gora Mendaroko Ospitalean, eta beharrak bultzatuta, 2,3 milioi eurotako inbertsioa egingo du ospitalak handitze obretarako. Larrialdi kasuak, esate baterako, 30.000 izan ziren 2008. urtean, aurreko urtean baino %26 gehiago. Inbertsioa handiagoa izango da, baina. Izan ere, handitze obretara bideratutakoaz gain, 500.000 euro gehiago inbertituko



dituzte larrialdi gunetako ekipamendua berritzeko. Inbertsio horiekin hurrengo zortzi-hamar urteetarako egokitu nahi dute ospitalea.

Hiru gunek, zerbitzu azkarragoa

Larrialdi zerbitzuetako eraikin berria hiru gunetan banatuko dute: batetik

umeen larrialdietarako gunea egongo da, eta bestetik, helduentzako. Azken horrek beste bi sail edo gunek berezi izango ditu: bata, larrialdi kasu ohikoenetarako, eta bestea, kasu larriagoetarako. Horrek larrialdi zerbitzua azkartzeko balioko du, eta baita ospitaleko langileen egitekoa hobeto antolatzeko ere.

Manuel Salegik eta Pedro Garatek irabazi dute Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa



Kimetz elkartean jokatu zen joan zen zapatuan Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa, eta Manuel Salegik eta Pedro Garatek jantzi zuten txapela. Horrez gain, bi txuleta, bi pasta kaxa eta bi xanpain botila ere jaso zituzten. Sei bikotek hartu zuten parte, eta partaide bakoitzak errioxako ardo botila bana jaso zuten. Heldutasuna eta eskarmentua izan ziren nagusi. Manuel Salegik eta Pedro Garatek Seguran jokatu dute Gipuzkoako kanporaketa otsailaren 27an, eta bertan irabazten badute, martxoaren 20an izango dute final nagusia.

Izena **Joseba Zinkunegi**



Espainiako Auzitegi Nazionalak libre laga ditu Batasunaren aurkako operazioan 2008ko otsailean atxilotutako zazpi lagun, 50.000 euroko bermea ordainduta. Horietako bat da Joseba Zinkunegi, Elgoibarren bizi den eibarra. Jardunbide politikoa izatea debekatu diote, gehienei bezala, eta ekintza horiek zeintzuk diren ere zehaztuta dator autoetan: bilerak, manifestazioak, ekitaldi publikoak, taldeen osaketa eta ezaugarri berdin edo antzekoetako koalizio edo alderdi politikoak osatzea. Zinkunegi barixaku gauean irten zen Aranjuezko espetxetik.

Berbia **Merkataritza**

Elgoibarko Udalak merkataritza teknikari bat hautatuko du, herriko merkataritza dinamizatu eta sektorekoei aholkuak emateko. Lan eskaintza horri buruzko informazioa www.lanbide.net webgunean aurkitu daiteke.

Irudia **Autoa errekan**

Zapatu eta domeka arteko goizaldean Deba ibaira erori zen auto bat Rezola gasolindegia-aren parean. Istripua goizaldeko 4:40ak inguruan gertatu zen Barne Saileko iturriek jakinarazi dutenez. Barruan zihoazen bi lagunak onik daude. Euren kabuz irten ziren autotik eta ibaitik, eta Mendaroko Ospitalera eraman zituzten zeuzkaten zauri arinak sendatzeko.



Bost bat astean Mendaroko ospitalean ez dute OTA-TAC eskaner probarik egingo

Astelehenean hasi zituzten Mendaroko ospitalean erradiologia guneko obrak, eta hori dela eta, bost bat astean ez dute han OTA-TAC probarik egingo. Eskaner zaharra potentzia eta doitasun handiagoa duen batek ordezkatuko du. Bost astean, Donostia, Arrasate, Eibar edota Zumarragako osasun zentroetara bidaliko dituzte gaixoak proba hori egitera, eta ospitalak anbulantziak jarriko ditu horretarako.

Sutea izan da Belaustegi jatetxean

Belaustegi jatetxeko jangela batean sutea izan zen zapatuan. Jatetxeko jabeek Aiestia-San Migeleko auzotarren eta udaltzainen laguntza izan zuten sua itzaltzeko, eta ez zen ezbehar larririk gertatu. Josu Mugertza jatetxeko jabeak esan duenez, suerte handia izan zuten.



Argazkia: Aitor

Elgoibartik Donostiara joateko autobus gehiago

Otsailaren 15etik aurrera Eibar-Donostia linean zerbitzu handiagoa eskainiko du Pesa enpresak. Zapatuetan, domeketan eta jai egunetan 22:00etan izango da Donostiatik itzultzeko azken autobusa. Horrez gain, astegunetan ere zerbitzua zabalagoa izango da. Ordutegi eta zerbitzu berriak www.pesa.net webgunean kontsultatu daiteke.

AINHOA MUGERTZA

11 URTE

Prestatu duzu inauterietarako mozorroa?

Bai, ezkontza bateko gonbidatuak bagina bezala jantzi-gara, baina ez da ezkongairik egongo, gonbidatuak bakarrik.

Gustatzen zaizkizu inauteriak?

Bai, urteko festarik onenetakoak dira.

Nola lortu duzue mozorroa?

Etxekoei eskatu dizkiegu jantziak, izebari-eta. Ez dugu dirurik gastatu.

Normalean egiten ez dituzunak egiteko aukera ematen du mozorroak?

Ez, ez dut ezer berezirik egiten.

Zein mozorro ez zenuke jantzi-gara inoiz?

Pailazo mozorro oso ikusia dago, eta ez zait gustatzen.

Eta zein da, aldiz, gehien gustatzen zaizuna?

Jantzi izan ditudan mozorro guztiekin pasatu izan dut ondo.

Taldean ala bakarka mozorrotzen zarete?

Orain arte bakarka, baina aurrean koadrilan mozorrotuko gara.

Zaila izan da denon gustuko mozorroa aukeratzea?

Pixka bat bai. Ez ginen ados jartzen eta azkenean gehiengoak nahi zuena aukeratu dugu.

Hartuko duzue parte inauterietako ekintzetan?

Ez dakit zer antolatatu duten. Kalera irtengo gara, eta gero ikusiko dugu zer egin. Agian, animatuko gara, baina oraindik ez dugu ezer pentsatu.

Zein ordura arte lagako dizute kalean ibiltzen?

Arratsaldean irtengo gara lagunak, eta gero gurasoekin afalduko dut kalean. Eurak ere mozorrotzen dira.



Antzerkia



'Ali', Herriko Antzokian

Txalo Produzioak aurkeztuta umeentzako *Ali* ikuskizuna izango da domekan, Herriko Antzokian. Alfonbrak, olio lanparak, oihalak eta beste hainbat gauza saltzen dituzten merkatari bi Ekialdeko hiri handi bateko merkatura heldu dira. Horietako bat Aliren alfonbra hegalaria da. Milaka abentura biziko dituzte une horretatik aurrera. Antzezlana 16:30ean hasiko da.



ZERK EMATEN DIZU LOTSA?

Ane Galindo

6 urte

Jende aurrean abestekak. Baina oso ondo egiten dudala esaten dutenez, abestu egiten dut.



Janire Egaña

6 urte

Antzerkia egiteak. Baina bukaeran txaloak jasotzen ditugu, eta hori gustatzen zait.



Nora Sota

7 urte

BARRENen irteteak ematen dit lotsa pixkat, eta gelan arbelera irteteak ere bai.



Ibon Gomez

6 urte

Pertsonen aurrean gauzak egiteak lotsa ematen dit. Denak niri begira egotea ez zait gustatzen.



Amanda Caro

6 urte

Ez daukat lotsarik. Jende aurrean dantza egiten dut, baina ez naiz lotsatzen.



Enara Calleja

6 urte

Jendea agurtzea. Konfiantza hartu arte ezezagunekin lotsatu egiten naiz.



Musika eskolako 45 ikaslek jaso dute domina Andoaingo piano jaialdian

Inazio Bereziartua musika eskolako 45 ikaslek hartu zuten parte joan zen asteburuan Andoaingo piano jaialdian. 14 bikoteka aritu ziren, eta 17 bakarka. Hamalau urrezko domina, 29 zilarrezko eta brontzezko bi ekarri zituzten etxera. Guztira 11 eta 18 urte bitarteko 867 ikaslek hartu zuten parte, bakoitza bere kategorian. Ekitaldiaren itxiera kontzertuan maila bakoitzeko onenek hartu zuten parte, eta horietako bikote bat Jon Bereziartua eta Mikel Burgaña elgoibartrek osatutakoa izan zen.



Hotza eta elurra berriro ere iragarri dituzte metereologoek.

Sinisten duzu eguraldi iragarpenetan?



Fernando Soto
70 urte, jubilatua

Bai. %99an asmatzen dute; ez da lehen bezala. Gaur egun oso tresna onak dituzte eguraldia iragaritzeko. Giroa asko aldatu da. Ni Valladolideko naiz, eta lehen neguan askoz elur gehiago egiten zuen. Denok hartu behar ditugu klima aldaketaren kontrako neurriak.



Julian Conde
70 urte, jubilatua

Bai, erabateko fedea daukat. Batzutan ez du egiten metereologoek esaten dutena, baina hori haizearen norabidea aldatzen delako izan daiteke. Batzutan alarma pizten dute. Jendea autoan kontu handiagoz ibiltzeko eta arazoak gutxitzeko izan daiteke.



Carlos Gonzalez
77 urte, jubilatua

Bai, baina badaezpada, goizero zerura begiratzen dut: euria bada, aterkiarekin irteten naiz kalera, eta eguzkia bada, ez dut hartzen. Azken 50-60 urteotan asko aldatu da klima. Lehen abuztuan ere zirimiria izaten genuen, eta uda oso laburra izaten zen oraingoaren aldean.



Gregorio Esnaola
84 urte, jubilatua

Bai, bi telebista katetan ikusten dut eguraldiaren iragarpena. Beti ez dute gauza bera esaten, baina gehienetan asmatzen dute. Eguraldia asko aldatu da. Orain dela 50 urte sekulako izotz kandelak ikusten ziren leihoetan, eta gaur egun kandela bakarrak elizan ikusten dira.

ESKERTZA

SEGUNDO RAIGOSO FERNANDEZ



Nahiz eta urrun joan mundu honetatik, ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.

2010eko otsailaren 1ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Erretratu zaharra



1974

Aste honetako erretratu zaharra Idoia Azpilikuetak lagatakoa da. Madalako parkean aterata dago argazkia, mojen eskola aurrean. Garai hartan ere, dotore janzten ziren elgoibartarrak inauterietan. **Goian, ezkerretik eskumara:** Arantza Beitia, Nekane Zabala, Maria Eugenia Gonzalez, Idoia Azpilikueta, Myriam Etxaniz eta Ane Beitia. **Beheko ilaran:** Gemma Iribarren, Bittori Zabala, Jaione Etxaniz, Gorka Azpilikueta, Jone Beitia, Kristina Gonzalez eta Susana Azpilikueta.

Gure berbak



TIO JOXE MARI BETELURI!

Gizon on bat jua jaku aste honetan; senar on bat, aitta on bat, osaba on bat. Egun batetik bestera, ixa konturatu gabe jua jaku Joxe Mari Beteluri.

Juan zera gorputzez, tio, baiña gauza asko laga dittuzu gure artian, eta danak onak.

Familixa ezin jatorragua eta batuagua osatu dozu. Gaur egungo bizimodu zoro honetan, erakutsi diguzu bizitza lasaixa ere egin leikela: lasai pasiatu, baztarrak ikusi, liburu onak irakurri, musika klasikua entzun, munduaren gaiñian hausnartu, tertulixan jardun...

Tertulixan, zure euskera ederrian, nik gozatu eta jaso ahal izateko suertia izan doten euskera horretan. Zen-

bat gauza irakatsi didazuz gai horretan ere! Hidak aditzetan, dakidan apurra zuk irakatsitakua da, beste hainbat gauza bezela.

Hillaren amaieran, doktorien kapela jartzen dieran, zurekin akordauko naiz, tio, zuri eskeiñiko dizut, zuria ere izango da eta; zuk esaten zundun bezela, zu izan zeralako nere maisu, zuk erakutsi didazuzelako Elgoibarko hizkeriaren gorabehera asko eta asko, zuk kontatu didazuzelako (egoki-egoki kontatu ere) Elgoibarko sasoi bateko kontakizun eta anekdota asko. Zuretzat izango da, tio, diplomia!

Adiorik ez, tio, gurekin egongo zera eta!

Jesus Mari Makazaga

Gaur hasiko dira inauterietako ekitaldiak eta datorren martitzenera arte iraungo dute

Ume, gazte zein nagusientzako egitaraua prestatu dute

Gaur arratsaldean hasiko dira inauterietako ekintzak Elgoibar Ikastolako euskal inauteriaren. Kalejira egingo dute, eta Plaza Handian dantza saioa eskainiko dute ondoren (euria egiten badu, Ikastolako frontoian geratuko dira).

Asteburuari begira, umeentzako egitaraua prestatu du Atxutxiamaiak aisialdi taldeak. Bihar, otsailak 13, mozorroen desfilea eta Atxutxikaraokea izango dira arratsaldean Plaza Handian. Gauerako, berriz, Elgoibarko Izarrak mozorroen lehiaketa antolatu du, Madalako parkean (euria bada, ikastolako frontoian). 60ko eta 70eko hamarkadetan girotutako dan-



tzaldia izango da, eta partaideek garai hartako musikaren eta dantzaren errit-mora mugitu beharko dira. Hala ere, koreografia konkreturen bat nahi duenak musika eramateko aukera izango du. Talde onenak 275 euro jasoko ditu, eta bigarrenak 175 euro. Banakakoen alorrean 125 euroko sari bakarra emango dute, eta koreografia onenak ere 125 euroko saria izango du. Epaimahaia herriko hainbat gaztek osatuko dute.

Martitzenean, otsailaren 16an, bukatuko dira inauterietako ekitaldiak, eta egun horretako ekintza nagusia mozo-

roen kale-agerraldia izango da. 16:30ean mozorrotutako jende guztia bilduko da Plaza Handian. Inauterietako egitarau guztia agendan irakurri daiteke.

BARREneko azala

BARREN astekariak herritarren eskura laga du datorren asteko alearen azala. Herritar bakoitzak hiru argazki bidali ditzake, eta guztien artean aukeratu dute astekariaren lehen orria. Gainerako argazkiak astekarian eta www.elgoibarren.net atarian jarriko dituzte ikusgai.

INAUTERIEKAKO AZALA HERRITARREN ESKU LAGAKO DUGU ERRETRATUAK JASOTZEKO EPEA LUZATU DUGU!
 BIDALI INAUTERIEKAKO ARGAZKIAK OTSAILAREN 13rako.
 JASOTZEN DITUGUN ERRETRATU GUZTIEN ARTEAN AUKERATUKO DUGU BARRENEKO AZALA.
HERRITAR BAKOITZAK HIRU ARGAZKI BIDALI DITZAKE, GEHIENEZ.
 Informazio gehiagorik: 943 744 112 (Ainboa)
barren@elgoibarkoibarra.com

B BARREN

JARRI ERRETRATUA BARRENEKO AZALARI!

Sorpresak iragarri ditu Sinuosek gaur gaueko kontzerturako

Kultur Etxeko sotoan izango da ekitaldia 22:30ean

Sinuose taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean Kultur Etxeko sotoan, eta sorpresak egongo dira iragarri dute. Iban Urizarrek eta Patxi Zabaletak osatzen dute Sinuose bikotea, eta 1997an hasi ziren inauterien bueltan ekitaldiak antolatzen. Malape tabernan egiten zuten lehenengo, Herriko Antzokian ondoren, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan biltzen dira. *Sinuose wants you* izena jarri diote aurtengo ekitaldiari, eta horixe da zabaldu nahi duten mezua: Sinuosek behar zaitu. Herriarren presentzia eta partehartzea eskatu dituzte gaur gaueko saiorako. Kontzertua 22:30ean hasiko da.



Taupadak Herriko Antzokia bete zuen



Taupada antzerki taldeak prestatutako *Isladak* lanak Herriko Antzokia betetzea lortu zuen joan zen barixakuan. Saioa hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten Herriko Antzokian batutakoek, Segundo Raigosoren omenez. Zine akomodadore ohiak urte luzetan antzerkiaren zein kulturaren alde egindako lana goraiatu zuen Edurne Lasa zuzendariak, eta Segundok azken lan hau ere gustura ikusiko lukeela adierazi zuen. Ondoren, esketx laburretan euren kezka, ilusioak, asmoak eta egunerokotasunean ohikoak diren gaiak irudikatu zituzten. Amaieran gustura zeuden egindako lanarekin eta ikusleek “kritika onak” egin dizkietela adierazi zuten antzezle-etako batzuek. Aktoreek eskerrak eman nahi dizkiete Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga zuzendariari egindako lanagatik eta eurekin izaten duten pazientziagatik.

Natalia Mellado, hilaren 19an Herriko Antzokian

Errusiako bira arrakastatsuen ostean, herrira itzuliko da Natalia Mellado elgoibartarraren flamenko konpainia, *Natalia* izenburuko lana aurkezteko. Orain bederatzi bat urte laga zuen Melladok Elgoibar, Madrilen aukera gehiago zeuzkalako, eta ordutik flamenkoko abeslari onenen aldamenean jardun du. Gaur egun, bere izena oso ezaguna da, batez ere Espainian. Gaur zortzi, Elgoibarren ariko da, Herriko Antzokian, 22:15etatik aurrera. Sarreak egunean bertan ere erosi ahal izango dira Herriko Antzokiko txar teldegian.



Zuriñe Gredillaren egurrezko lanak, Kultur Etxean ikusgai

Zuriñe Gredillaren (Barakaldo, 1966) egurrezko arte lanekin erakusketa bat osatu du Elgoibarko Udalak, eta hilaren 21a arte egongo da zabalik, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Zuriñe Gredillak Debako Arte Eskolan eman zituen lehenengo urratsak, eta ezaguna da artisautza azoken munduan. Era berean, egurra lantzeko ikastaroak ere eman izan ditu inguruetan. Orain, Elgoibarren bildu ditu bere lanik ikusgarrienak, eta ikusi nahi dituenak hemen du ordutegia: astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

LOREN GALEANO

Futbolaria

Umetan hasi zen Loren Galeano futboleant jokatzeko, eta 30 urterekin futbola lagatzea erabaki du. 19 urterekin iritsi zen Haundira. Bigarren B mailan zegoen orduan taldea, eta, orduan, zenbait kategoriatan jokatu izan du. Urtebetez Durangon jokatu zuen, baina bestela, urte guztiak Elgoibarren jokatu ditu.

“Haundik daukan talde giroa ez dago beste inon”

Nola aldatu da zure bizimodua futbola laga duzuetik?

Astean zehar lehengo bizimodu bera egiten dut, eta, gainera, entrenatzera joaten naiz. Asteburuak, baina, luze joaten dira. Futbolak denbora asko kentzen zidan. Abuztuan hasten dira entrenamenduak, eta denboraldia luzea da. Urte asko geratu naiz abuztuan oporretan joan gabe. Jende askok uste duena baino gogorragoa da futbolaria izatea.

Omenaldia egin dizute zure lana eskertzeko. Zer sentitu duzu?

Emozionantea izan da, eta ilusio handia egin dit. Azken batean, urteetan egin dudana kontuan hartu dute, eta horrek poza ematen du. Kapitaina izan naiz azken urteetan, eta zuzendaritzakoekin, arbitroekin eta jokalariekin oso harreman ona izan dut. Haundik daukan talde giroa ez dago beste inon. Hemendik pasatu diren guztiak esaten dute hori, nahiz eta gero, Bizkaiko Ligan jokatu. Bizkaian ordaindu egiten diete jokalariei, eta hemen jokalariek ordaindu egin behar izaten dugu jokatu ahal izateko. Diferentzia handia dago, baina ni oso gustura egon naiz hemen.

Gogoratzen duzu Haundirekin jokatzeko hasi zinen unea?

Bai, 19 urte nituen. Jubenil mailan nengoen, eta aurrendenboraldia egiteko deitu zidaten Haundiko arduradunek. Partidak ikustera joaten nintzen, eta jokalariek haien aldamenean entrenatzea sekulakoa izan zen. Urte hartan, gainera, Haundi bigarren B mailara igo zen. Orduan hainbat kategoriatan ezagutu ditut.

Gaztea zara oraindik. Zergatik erabaki duzu futbola lagatzea?

Nire ordua iritsi da. Oso gazte hasi nintzen, eta dagoeneko nekatuta



nengoen. Iazko denboraldi amaieran egon nintzen lagatzekoan, baina taldea ez zegoen oso ondo, eta beste urtebete jokatzeko erabaki nuen. Aurten, baina, denboraldi oso ona egin dugu. Inork ez zuen gure sinisten, baina *play off*-ak jokatu ditugu, eta gainera, Burgosen kontra maila ona erakutsi genuen. Taldea momentu onean laga dut, eta aho gustu onarekin geratu naiz.

Mintxeta bete egin zen *play off*-etan, baina bestela, joaten da jendea taldea animatzera?

Mintxeta oso hotza da. Portugaleten, esate baterako, herritar guztiak joaten dira taldea animatzera. *Play off*-ekoa izugarria izan zen, baina zaila izango da Mintxeta berriro horrela ikustea. Une gogorretan herritarrek taldearekin egon dira, eta hori eskertzekoa da. Burgosera bitarteko autobus beteta joan ziren gu animatzera.

Zein izan da futboleant bizi izan duzun unerik onena?

Futbolak momentu onak eta txarrak dauzka, baina ni onekin geratzen naiz. Dударik gabe, azken *play off*-a izan da onena. Une txarrak lehenbailehen ahaztea izaten da onena. Emaztea ere pozik dago futbola laga dudalako. Azken batean, berak jasaten zituen nire une onak eta txarrak. Pazientzia handia izan du.

Faltan botako duzu futbola?

Oraindik entrenamenduetara joaten naiz, eta ez dut erabat laga. Baina bai, futbolaren bueltan sortzen den giroaren falta sentitzen dut. Partida aurretik kafetxea hartzeko geratzen ginen, zelaira irteteko uneko urduritasuna... Oso polita da.

Mendia eta sagardotegia uztartu zituzten 30 lagunek Morkaikorekin

Plazaolako bide berdean zehar egin zuten ibilbidea



Morkaikok antolatuta mendia eta sagardotegia uztartzeko irteera egin zuten joan zen zapatuan 30 lagunek. Plazaolako tren geltokitik Andoingo Otita auzoko bidea egin zuten. 20 kilometroko ibilbidea egin zuten oinez trenbide zaharraren bidean, Leizarango bailaran zehar; tarteka euripean. Ibilbidearen ostean Astigarragan kendu zituzten neke denak Rezola sagardotegian. Antolatzaileek giro apartean ibili zirela adierazi dute.

Elgoibarko igeriketa taldekoek Azpeitiko proban hartu zuten parte joan zen asteburuan



Elgoibarko igeriketa taldeko 19 lagunek hartu zuten parte joan zen asteburuan Azpeitiko igeriketa proban. Ainhoa Rodriguez, Aimar Arrieta, Kimetz Bergaretxe, Zorione Cuesta, Urtzi Iparragirre eta Sandra Caeirok 50 metro libreko proban hartu zuten parte. Iban Uribe, Andoni Galindo, Eneko Larruskain eta Jon Velak 100 metro librean jardun zuten. Azkenik, Nagore Rodriguez, Imanol Albizu, Elsa Astigarraga, Ane Almenara, Leire Galindo, Mikel Garcia-Abad, Maialen Loiola, Ana Zubiaurre eta Sara Navarrok 50 metro bizkarrez egiteko proban aritu ziren. Bestalde, Kirol Patronatuak jaioberrientzako, haurrentzako eta nagusientzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu. Otsailaren 16tik 22ra eman daiteke izena.

EMAITZAK

FUTBOLA

Zalla 0 – Haundi 0 (3. maila)
Getariako Keta 2 – Elgoibar 3 (Erreg. Pref.)
Anaitasuna 1 – Elgoibar 0 (Jub.)
Elgoibar 0 – Behobia 4 (Kad. A.)
Urki 1 – Elgoibar 2 (Kad. B.)
Elgoibar 1 – Lagun Onak 2 (Inf.)
Lengokoak 8 – Elgoibar 0 (Txiki)
Elgoibar 2 – Anaitasuna 0 (Nesk.)
Bergara 1 – Elgoibar 4 (Aleb.)

PILOTA

Udaberri Txapelketa

Hernani 22 – Lagunak 18 (1. mailako Kad.)
Antiguoko 21 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Ilunpe 21 – Lagunak 22 (1. mailako nag.)
Intxurre 21 – Lagunak 22 (3. mailako nag.)

Pala

Kurpil Kirolak 25 – Lagunak 18 (2. mailako nag.)
Lagunak 18 – Usurbil 25 (1. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Elorrioko Buskantza 3 – Concepto Createch Elg. 8

ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. 23 – Askartza 18 (Sen. nes.)
Alkorta Elg. 34 – Ereintza 33 (Sen. mut.)
Pulpo 29 – Alkorta 31 (Sen. mut.)
Soraluce 13 – Beristain 26 (Jub. mut.)
Amaña 21 – Lauko Elg. 25 (Kad. nes.)
Amenabar 34 – Pneumax Elg. 23 (Kad. mut.)
Ikus Elg. 25 – Ereintza 9 (Inf. nes.)
Iruena Ordizia 13 – Aterpe 15 (Inf. nes.)
Aloña Mendi 6 – Astigarraga Elg. 24 (Inf. nes.)
Arrasate 7 – Bankoa Elg. 34 (Inf. mut.)
Arrate B 11 – Txarriduna Elg. 19 (Inf. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 20

16:00 Concepto Createch Elg. – La Bellota

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 13

13:00 Elgoibar – Mariño C.D. (Ohorezko jub.)

16:30 Haundi – Gernika (3. maila)

18:45 Elgoibar – Lagun Onak (Pref.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 13

11:00 IMH Elg. – Ermua (Kad. nes.)

12:30 Grupo Eibar Elg. – Bera Bera (Jub. nes.)

16:00 Pneumax Elg. – Ereintza (Kad. mut.)

17:30 Beristain Elg. – Amenabar (Jub. mut.)

ESKU PILOTA

Barbakua, 12

20:00 Lagunak – Azkoitiako (1. mailako kad.)

21:00 Lagunak – Azkoitiako (1. mailako nag.)

22:00 Lagunak – Beloki (1. mailako nag.)

23:00 Lagunak – Añorga (Pala, 2. mailako nag.)

IDARRAGA SARIAK

1. Larrea 52 puntu.
2. Guinea 49 puntu.
3. Iker 40 puntu.
4. Gabilondo 31 puntu.

LANA

ESKAERA

- Edadeko jendea zainduko nuke arratsaldeetan.
☎ **943 743 251**
- Gizonezkoa lanerako prest. Nagusiak zainduz, sukaldari laguntzaile edo beste edozer. ☎ **665 513 851**
- Emakumea garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna, externa edo orduka. ☎ **662 247 584**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka lan egiteko. ☎ **663 786 976**
- 43 urteko emakumea, erizain laguntzaile tiuluarekin, nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Euskaraz badaki.
☎ **678 117 022 82** (20.00etatik 22.00etara)
- Emakumea, nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **679 231 950**
- Emakumea, edozein lanetarako prest.
☎ **649 023 534**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizain profesionala. ☎ **649 008 036**
- Emakumea, adin nagusikoak zein haurrak zaintzeko prest. ☎ **618 377 283**
- Neska euskalduna, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Arratsaldez, jai egunetan eta astebukaeretan. Klinika Laguntzaile titulua du. ☎ **943 748 209**
- Gizona, lanerako prest, edozein gauzetan: garbiketa, elektrizitatea,... ☎ **606 612 834**
- Klase partikularrak ematen dira maila eta ikasgai guztietan, ingelesezko klaseak ere bai. Adin guztietan.
☎ **652 763 264**

- Ordenagailuak konpontzen dira. Prezio merkean.
☎ **646 743 828**
- Gizonezkoa, garbiketa lanak egiteko prest (portalak, bulegoak,...). Auto propioa. Edozein ordutegi.
☎ **605 800 582**
- Emakumea, nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta sukaldari laguntzaile izateko prest.
☎ **671 943 612**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizain profesionala. ☎ **649 008 036**

ESKAINNTZA

- Mutil euskalduna behar da, 20-35 adinekoa, komertzial arloan gaitasunarekin eta auto propioarekin.
☎ **685 714 572**
- Ingeleseko klase partikularrak emateko pertsona behar da, DBH 1. maila ☎ **608 312 572**
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira.
☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Pisua alokatzen dut Mendaran.
☎ **658 603 478**
- Elgoibar erdigunean pisua salgai. Bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, terraza handia eta garajea.
☎ **685 724 553**
- Ganbara alokagai, 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. San Frantzisko kalean.
☎ **639 017 752**

- Basarte kalean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainu-gela, egongela eta sukaldea. Egoera onean. Berria. Altzariekin. Garajea eta trasteroa.
☎ **669 627 655**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan.
☎ **628 521 579**
- Aterpe tabernaren behean garajea alokatzen da.
☎ **943 741 837**
- Garaje itxia alokagai Jausoron. Plazatik gertu.
☎ **669 022 573**

BESTELAKOAK


- Urrezko pultsera bat galdu nuen duela 2 aste. Norbaitek aurkitu badu, deitu mesdez.
☎ **943 743 251**
- Hamster batentzako kaiola oparitzen da.
☎ **678 976 368**
- Rocioko Ama Birjinaren urrezko domina galdu zait zine inguruan. Norbaitek bilatu badu mesedez itzuli. Gaisotasun larria dut eta garrantzitsua da niretzat.
☎ **943 743 163**
- Bi mexikano mozorro saltzen ditut, gizonezkoena eta emakumezkoena. Behin bakarrik erabiliak.
☎ **943 740 079**


OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro





**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a





Urtarrilako irabazlea:
**MIRENLORE
ZUBIZARRETA**

Otsailako saria:
**KOLOREA,
MOZKETA ETA
HORRAZKERA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



• Zorionak, **Saray**, gaur 16 urte egin dituzulako. Muxu handi bat bihotzez familia-koen, eta bereziki, gurasoen eta Eiderren partez.



• Egun berezi eta ahazte-zina pasatu genduan alkarrekin. Zorionak, **txapel-dun!** Eman bostekua!



• Zorionak, **Haizea**, datorren astelehenean urtebete egingo duzulako. Muxu handi bat aittitta-amamen partez.



• Zorionak, **maitia**, eguaztenean 7 urte egingo dituzulako. Muxu bat etxeko-en, eta bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Olatz**, astelehenean urtebete egin zenuelako. Muxu handi bat etxeko-en eta bereziki, Izaroren partez.



• Zorionak, **Paul**, gaur 9 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familia-koen partez.



• Zorionak, **poxpolin!** Marrubizko hamar muxu potolo etxeko-en partez.



• Zorionak, amama **Mari**, hilaren 14an 93 urte egingo dituzulako. Muxu bat seme-alaba, iloba eta biloben partez.



• Zorionak, **Golatz**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki, lehengusu Arhane eta Sugarren partez.



• Zorionak, **Nagore**, astelehenean, hilak 15, 7 urte egingo dituzulako. Miren, amatxo eta aitaxo.



• Zorionak, **Malen eta Manex!** Zortzi eta lau patxo handi-handi familia-koen partez.



OSPAKIZUNAK



Zorionak, **Jon eta Mikel**, Andoaingo piano jaialdian aipamen berezia jaso zenuelako.

Erretratu bakarreko agurra:

2 euro. Argazki bikoitza:

3 euro. Hirukoitza: 5 euro.

Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu.

BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo

barren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

Elgoibarko Haur eta Gaste Informazio Gunerako

GAZTE INFORMATZAILEA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- ◀ Unibertsitateko diplomatura, goi mailako batxilerra edo LHIiko ikasketak izatea.
- ◀ Herritarra izatea.
- ◀ Aisialdian, haurtzaroan zein gazteriarren alorretan prestakuntza espezifikoa edo eta alor horretan lan eskarmentu akreditatua izatea.
- ◀ EGA titulua edo baliokidea izatea baloratuko da.

ESKAINTZEN DA:

- ◀ 2010eko iraila arteko lan kontratua.
- ◀ Astean 35 orduko lanaldia.

Interesatuak curriculumak bidali, martxoak 1 baino lehen, e-posta honetara: aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com. Tel.: 943 74 16 26 (Idoia)

OKINDEGIA

14 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 12 Etxeberria (*Errosario*)
- 13 Ibañez
- Goizez: Yudego
- 14 Ibañez
- 15 Garitaonandia
- 16 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 17 Fernandez
- 18 Yudego
- 19 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«Celda 211»

- 12, barixakua: 22:15
- 13, zapatua: 19:00/22:15
- 14, domeka: 19:00
- 15, astelehena: 21:30

12 barixakua

Erakusketa

19:00 Egurrezko lanak

Zuriñe Gredillak egurrezko lanei buruzko erakusketa inauguratuko du. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Enkartelada

20:00 'Inkomunikazioa, tortura stop'

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, Plaza Handian.

13 zapatua

Kale-erakusketa

11:00 'Inkomunikazioa, tortura stop'

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta. Ondoren, manifestazioa izango da, Plaza Handian hasita.

14 domeka

Tailerra

10:00 Familia konstelazioak

Kemen belardendak antolatuta, zortzi orduko tailerra izango da. Arratsaldeko saioa 16:00etan hasiko da.

Antzerkia

16:30 'Ali'

Txalo Produzioak taldeak aurkeztuko du umeentzako *Ali* antzezlan. Herriko Antzokian.

17 egueztana

Hausterre eguna

8:00 Meza eta hautsa hartzea Santa Klarako elizan.

10:00 Meza eta hautsa hartzea Parrokian.

17:00 Hautsa hartzea kristau ikasbideko gurasoentzat eta umeentzat. Parrokian.

19:00 Meza eta hautsa hartzea Parrokian (hiletarik balego, bukatu ondoren egingo litzateke)

19 barixakua

Musika

22:15 Natalia

Natalia Mellado elgoibartarrak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 12

Eibarko kaldereroak ikustera
18:30

ZAPATUA 13

Atxutxamalka koreografia lehiaketa
17:00

DOMEKA 14

Zinema eta argazki erakusketa 17:00

MARTITZENA 16

Txarangaren kalejirara 17:00

EGUAZTENA 17

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 18

Sukalde txokoa 17:00

LUDOTEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 12

Mozorro festa 17:00

ASTELEHENA 15

Musika jolasak 17:30

MARTITZENA 16

Pailazoaren emanaldira irteera 16:00

EGUAZTENA 17

Futbolin txapelketa 17:30

EGUENA 18

Jolas kooperatiboak 17:30

Espainia, 2009. Zuz.: Daniel Monzon. Akt.: Luis Tosar, Marta Etura, Alberto Ammann, Antonio Resines. 110 min. 18 urtetik gorakoentzat. Espetxe funtzionario batek lehen egu-

na du kartzela batean. Egun horretan bertan, presoek matxinada batean geldituko da harrapatuta. Bizirik irauteko, preso bat balitz bezala aurkeztuko du bere burua.



INAUTERIAK 2010

12 BARIXAKUA

15:15 Euskal Inauteriak

Elgoibar Ikastolakoek antolatuta, kalejira eta dantza saioa Plaza Handian.

22:30 Kontzertua

Sinuose taldeak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

13 ZAPATUA

17:00 Atxutxikaraokea

Plaza Handian, Atxutxiamaiak antolatuta.

18:15 Txokolate jana

Zuhaitz aisialdi taldeak antolatuta, Plaza Handian.

18:30 Mozorro-kalejira

Atxutxiamaiak antolatuta, 16 urtera artekoentzako mozorro desfilea eta koreografiak. Izen-ematea 16:30etik aurrera. Informazioa, 943 741 626 telefonoan.

18:30 Mozorroen desfilea

Atxutxiamaiak antolatuta, 16 urtera artekoentzako mozorro desfilea eta koreografiak. Izen-ematea 16:30etik aurrera.

Informazioa, 943 741 626 telefonoan.

19:30 Mautitxa txaragaren kalejira

Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

23:00 Dantzaldia

Madalako parkean

23:30 Mautitxa txaranga

Kalejira

00:30 Mozorroen lehiaketa

Elgoibarko Izzarak antolatuta, 16 urtetik gorakoentzat. Madalako parkean. Sari banaketa, 01:30ean.

14 DOMEKA

18:00 Dantzaldia

Gelatxo orkestrarekin, Kultur Etxeko sotoan.

16 MARTITZENA

16:30 Mozorroen

kale-agerraldia

Plaza Handian

17:00 Musika tresnen fabrika

Plaza Handian

18:30 Mautitxa txaranga

Kalejira, erraldoi eta buruhandiekin

18:30 Dantzaldia

Gelatxo orkestrarekin, Kultur Etxeko sotoan. Mozorro lehiaketa ere egingo dute.



PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 25 osteguna 17:30

Enpresagintza Fakultatea

IRUN OTSAILAK 20 larunbata 10:00-13:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITAZA OTSAILAK 18 osteguna 18:00

ARETO NAGUSIAN

etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest



«Los condenados» (Ongarri zine-kluba)

18, eguna: 21:30

Espainia, 2009. Zuz.: Isaki Lacuesta
Akt.: Daniel Fanego, Arturo Goetz,
Leonor Manso, María Florentino. 104
min. Bi gerrilari ohi 30 urteren ostean
elkartu egingo dira, legez kanpoko

indusketa batean galdutako lagun
baten gorpua aurkitu nahian. Pixka-
naka, tentsioa handituz joango da
haien artean. Are gehiago ezkutatu-
tako sekretuak azaleratzen direnean.

SAGARDOTEGIETAKO ERROMESALDIA

Hasi da txotx denboraldia; iritsi da “gure sagardo berria” probatzeko ordua, eta Gipuzkoako sagardogileek Rea-lari eman diote aurten denboraldia hasteko ohorea, klubak ehun urte bete dituela-eta. Batzuek zein besteek lehen mailako emaitzak behar dituztela adierazteko modu bat izan da, beharbada, eta esan beharrik ez dago eragin handia izango duela orain arte egin duten lanak. Realak bide ona darama, eta sagardoa ere modu onekoa datorrela jakinarazi dute sagardogileek. “Nortasun handiko sagardoa atera da aurten”. Hala adierazi zuen Joxe Angel Goñi Sagarguneko sagardogileen bozeramaileak Astigarragan, txotx denboraldiaren hasiera ekitaldian. “Udazkenean giro goxoa egin zuenez, zuku aromatikoak dakar aurtengoak”.

Bederatzi milioi litro sagardo ekoitzi dituzte, iaz baino %30 gutxiago. Izan ere, aurtengo sasoiaren sagar gutxi batu da Euskal Herrian. Iraileko lehortek sagar asko hondatu zituen, eta, horregatik, kanpotik ekarri behar izan dute asko. Hala ere, horrek kalitatean eraginik ez duela nabarmendu dute sagardogileek. “Azukrerik ez du, eta dastatzean azidotetasun gutxiago du eta amaiera lehorragoa du”. Zorionekoak dira beraz sagardogileak. Bakailao tortilla eta txuleta samurra lagun direla, sagardoa erraz asko sartzen da, eta hori dena, giro onean eta lagun artean bada, are eta errazago. Aitzakiarik ez dago, beraz, eta hori igarri-igarrikoa da egunotan Astigarragako, Hernani eta ger-tuagoko sagardotegietan dabilen jendetzari erreparatuz gero.

Hemendik apirila bitartean, ekitaldi ugari izango dira sagardotegien bueltan. Gero eta gehiago dira, gainera, bazkalordua nahiz

afalordua girotzeko bertso-lariak edota musika jartzen duten sagardotegiak, nahiz sagardoak ez duen beste ezeren premiarik jendea kantuan jartzeko. Astigarraga eta Hernani dira hemen inguruan tradizio handieneko herriak, eta txotx denboraldian kolore berezia hartzen dute bi herriok. Domekan, esate baterako, sagar martxa antolatu zuten Hernanin lehenengo aldiz, kirola eginez inguruko baserri, sagarrondo eta sagardotegiak ezagutzeko. Hilaren 24an, berri, perkusio erakustaldi bat izango da herriko kaleetan zehar, eta martxoan, Sagardo Eguna ospatuko dute. Egun handiak dira horiek, baina izatez egunero izango da zer bait.



GURUTZETA
SAGARDOTEGIA

Oialume Bidea, 63
Astigarraga
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 552 242

Herri erdigunetik
100 metrora gaude

Rezola
sagardotegia

ASTIGARRAGA
Santio Zeharra 12 - Ipintza Baserria
Tel.: 688 811 724
rezolasagardotegia@gmail.com
www.rezolasagardotegia.com



Bestelakoan, sagardoaren inguruko tradizioa ez da lar aldatu azken urteotan, ezta sagardoa egiteko modua ere. Hala ere, erabilitako tresneria eta horren materiala garatu dira. Egurrezko eta burdinazko tresnen ordez altzairuzkoak daude orain, sagardogintzak, beste edozerk moduan, garapena behar duelako horrenbeste urtean irauteko.

Menuan ere, badira aldaketak sartzen zituzten sagardotegiak. Gehienek, hala ere, beti-betikoa mantentzen dute: bakailao tortilla, txuleta eta gazta eta intxaurrek postrerako. Gurutzeta sagardotegian, baina, okela berezia jateko aukera izango da, aurrez abisatu gero. Astigarragako Ergobia auzoan dago Gurutzeta, eta aurren, lehenengoz, Wagyu arrazako idi okela emango dute bertan. Japoniatik ekartzen dute, eta Patxi Larrañaga banatzailearen arabera, "samurra, eta zapora nahiz kalitate handikoa" da. Hemengo behi okelaren aldean, "digestio errazagokoa da", nabarmendu du.

LARRE-GAIN sagardotegia

Larre-gain baserria, Ereñozu auzoa
20.120 Hernani
Tel.: 943 555 846

LARRARTE SAGARDOTEGIA
Astigarraga
(Gipuzkoa)

- Bertan egindako sagardoa
- Botilak zuzeneko salmenta sagardotegian

LARRARTE sagardotegia

Muñagorri Enea Baserria
20115 ASTIGARRAGA
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 555 647
679 123 892

Petritegi
sagardoa * sidra natural

Petritegi
sidra natural

www.petritegi.com
20115 Astigarraga - Tel.: 943 457 188

OHAR GARRANTZITSUA!!!

BERRIRO ZABALIK

ELGOIBARKO MERKATU PLAZAN 4, 5, 6 zbkia.

JUARISTI HARATEGIA
URDAITEGIA

FERNANDO JUARISTI-REN JARRAIPENA

ESKAINTZAK



- BERTOKO PRODUKTUAK
- ONENETIK, ONENA. KALITATEA
- PRODUKTU FRESKOAK EGUNERO
- ARRETA PERTSONALIZATUA
 - PREZIO LEHIAKORRAK
 - ESKAEREN BILKETAK
- ETXEZ ETXeko ZERBITZUA



➤ AHOLKULARITZA ETA AURREKONTUAK KONPROMISURIK GABE

KRISIALDIA???

➤ URTEKO ARDO BOTILLA

1€

➤ DOZENA ERDI ARRAUTZA

+
➤ ETXeko 3 TXORIZO
+
➤ KILO BAT PATATA

2€

➤ KILO ERDI BABARRUN

+
➤ ETXeko 2 TXORIZO
+
➤ ODOLOSTE BAT

3€

➤ GISATZEKO OKELA KILO ERDI

+
➤ KILO BAT PATATA
+
➤ OGI BARRA BAT

4€

ZURE ZAIN GAUDE
Etorri eta ikusi!